

# BERRIGARA

199. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, urriak 27

## Museoko piezak

Erret Mintegiko zientzia bildumako piezak ikusgai

**T. Blanco**  
BLANCO Tailerrak

bilgailu arin eta astunen konponketa

**NISSAN**

ZERBITZU OFIZIALA

ERAKUSKETA eta SALMENTA:  
San Lorentzo Industria Poligonoa.  
Amillaga, 22 BERGARA.  
Telefonoa eta faxa: 76 17 35  
Erakustokiko telefonoa: 76 51 35



Nissan Almera berria





**GUIPUZCOANA**

*Paketean garraio eta banaketa*

**BERGARA**

San Juan Erreka. Elgetara bidea  
Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxe: (943) 76 54 28



BERROTALDE JAUREGIA  
JUSTO Bergara  
Tirnoa eta Faxe: 76 03 97

**Argitaratzailea:**  
JARDUN Elkarteak.  
Masterrera, 13 Bergara.  
Tirnoa eta Faxe: 76 08 19

**Zuzendaria:**  
Eneko Azkarate  
**Erredakzioa:**  
Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberezibar  
Jonne Larrañaga

**Maketazioa:**  
Eneko Azkarate  
**Publizitatea:**  
Alex Azkarate  
**Harpidetzak:**  
Gorka Elorza

**Testuen zuzenketak:**  
Esteban Plazaola  
Maripi Laskurain  
Alex Labaien

**Erredakzio kontseilua:**  
Gorka Elorza  
Miguel Angel Elkoroberezibar  
Alex Labaien

**Komikiak:**  
Bitor Rodriguez  
Gorka Ortega & Jon Alvarez  
Alex Ugalde

**Banaketa:**  
Txantxangorri taldea

**Tirada:**  
4.000 ale.  
**Inprimategia:**  
Beru Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**  
BERRIGARA  
**Lege gordailua:**  
93/50/91

**ISSN:**  
1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?


### JUAN MARTIN ELEXPURU UNEDen Herri Plataformakoa

**- Zenbat lagun bildu zineten astearteko bilan?**

- 40tik gora izango ginen. Herriko ikastetxe eta euskaltegietako ordezkariak, Bedelkarrekoak, Jardunekoak, UNEDeko fundatzaile izandakoak edota inguruko herrietako jendea etorri zen. Nik uste dut errepresentazio zabala lortu dela, esandako guztiak etortzea oso nekeza izaten baita. Zentroaren etorkizuna arriskuan dagoela ikusirik, helburua UNEDen iraupena eta zentru indartsu baten aldeko herri mugimendubat sortzea litzateke.

**- Zeintzuk izango dira berehalako aktuzioak?**

- Bueno, halako talde iraunkor bat sortuko da



eta lehenbizi manifestu batekin hasteko asmoa dago. Hortik aurrera arzoak ze itxura hartzen duen ikusi eta horren arabera erabakiko da aurrerantzean zer egin. Bestalde, gogorarazi nahi dut taldea zabalik dagoela UNEDen alde lan egiteko prest dauden pertsona guztientzat.

**"Taldea iraunkor bat sortu eta UNEDen aldeko manifestu bat plazaratuko dugu"**

## I T U R R I O N E T I K

### Maria Jose Alustiza donostiarrak eskuratu du aurtengo Justo Garate beka

Maria Jose Olaziregi Alustiza 32 urteko donostiarrak eskuratuko du aurtengo Justo Garate beka. Maria Jose Olaziregi Euskal Filologian lizentziatua da eta "Euskal gazteen irakurketa-gustu eta ohiturak. Hurbilpen soziologikoa" lana aurkeztu zuen. Guztira, soziologiari buruzko 17 lan jaso ziren eta epaimahaiak bekaren 935.000 pezetak Olaziregiri ematea erabaki zuen. Bestalde, datorren ostiralean 1992an Justo Garate beka eskuratu zuen Rosa Ramos Alfaroren "Nafarroaren euskararen egoera demolinguistikoa eta funtzionala" liburua aurkeztuko da arratsaldeko 7etan Udaletxeko Pleno Aretoan.

## E S A N D U T E

"Euskal enpresa lehiakortasuna lortzeko gauza ez bada, bereak egin du: atzeritik etorriko direnak jaun eta jabe izango dira beren produktiorako sareak sakabanatuz, eta euskaldunak beren lurraldetik kanpo irten beharko dute, konpetitiboak diren enpresak bilatuz.

Sindikatu, enpresari eta alderdi politikoen elkartasuna beharrezkoa da. Enpresak ezin du zutabe zaharren gainean zutik egon. "Bestearen ezua" leloa" ez da irtenbiderik egokiena, gure egia borobila eta bakarra dela defendituz"

**JAVIER RETEGI**  
Industria Sailburua  
EGUNKARIA

"Jon Salaberria satanikoa dela diote etsaiek, baina ezagutzen dugunok badakigu altura haundiko pertsona dela, ahalmen eta sormen haundiko axeria eta herriaren alde gazteekin gauza handiak egiteko gasolina politikoa soberan duela"

**MIKEL ZUBIMENDI**  
HBko parlamentaria  
ARGIA





**WATERWORLD**  
Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30,  
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



**DOS TONTOS MUY TONTOS**

Igandea: 11.30.



**UNA HISTORIA DEL BRONX**

Asteartea: 22.30.

Asteazkena: 17.00, 19.30,  
22.15.

## Zinea

▼▼ Zinearen historian zehar egin den filme garestiena omen da **Kevin Costner**ren hau.

Amaigabeko errodaia, milaka arazo eta zuzendaria (**Kevin Reynolds**) eta protagonistaren arteko haserreak. Etorkizunean mundu osoa ureztatuta dago eta *Marinerek* (**Costner**) lehorra aurkitu beharko du *Helen* (**Jeanne Tripplehorn**) eta *Enola* (**Tina Majorino**) neskatxaren laguntzaz.

▼▼ **Peter Farrelly**ren filme honetan, **Jim Carrey** (*La máscara*) eta **Jeff Daniels** aktore ezagunek hankasartzetan adituak direla ondo baino hobeto frogatuko dute. *Lloyd* (**Carrey**) izeneko taxistak, bere lagunarekin batera, ahalegin guztiak egingo ditu neska bati ahaztu duen maletina bueltatzeko.

▼▼ **Robert De Niro** zuzendutako filme honek oso harrera ona izan du publiko eta kritikaren artean. Mafiako buruetako bat (**Chazz Palminteri**) eta bere semearen heziketaz kezkatuta dagoen langile baten (**De Niro**) arteko tirabirak azaltzen zaizkigu. Gazteak (**Lillo Brancato**) bienganako leialtasuna azalduko du...

## Deiak

▼ **Abdon Juaristi**ren margo erakusketa Donostiako Echeberria Galerian (Zubieta, 20).

▼ **Eusko Alkartasuna**ren Alkartasuna Eguna igandean Bera de Bidasoan. Autobus eta bazkari txartelak Alkartetxean salgai.

▼ **Behobia-Donostia** korrika probara joateko autobusa antolatuko du Zaleak Atletiko Taldeak. Izen-ematea 76 20 31 telefonoan.

▼ **1944**an jaiotakoen anaiarteko eguna azaroareh 25ean. 7etan meza Santa Marinar eta ondoren afaria Lasan. Izen-ematea Itxas-mendi tabernan (76 50 64).

▼ **Gernikako ferriara** joateko jubilatuen irteera astelehenean. Izen-ematea 76 21 40 telefonoan.

## Ogia

▼ **Igandea 29:** Konde.

## FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 27:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Larunbata 28:** Mozos/Irizar.
- ▼ **Igandea 29:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Astelehena 30:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Asteartea 31:** Puy/Morales.
- ▼ **Asteazkena 1:** Guallar/Azkoa.
- ▼ **Osteguna 2:** Estella/Español.

B B T M

Santalaitz, 1 BERGARA

## BOLSOS BERGARA, S.L.

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66




# Bergarako museoa

## Seminarioko berriztutako piezak Kultur Etxean

**Seminarioko** museoa berreskuratzeko 1992tik 1995era bitartean egin-dako lanen lehen emaitzak ikusi ahal izango dira gaur hasi eta azaroaren 19ra bitartean Kultur Etxean.

Erret Mintegiko Bilduman 3.000 pieza inguru dira eta 1992an, Udalak, Diputazioaren laguntzaz, bilduma berreskuratzeko plan bat jarri zuen martxan. Ordutik Giza Anatomia, Zientzia aparailuak, Zoologia, Mineralogia eta Paleontologia sailtako hainbat pieza berriztu, ikasi, inbentariatu eta katalogatu egin dira. Aurrera eraman diren ekintza eta lanak herritarrei eza-gutzera ematea da erakusketaren helburua eta lan horien selekzio bat ikusi ahal izango da Kultur Etxeko erakusgelan.

Ikusleek bilduma zein egoeratan zegoen eta zein lan egin diren ezagutzeko aukera izango dute panel, argazki edota pieza originalen bidez. Az-



Gizakiaren eskuineko begiaren modeloa. 1896ko pieza.

ken hauen artean, berriztutako hainbat pieza, 1992tik 1995era bitartean dohaintzan lortutakoak edo erositakoak jarriko dira ikusgai. Guztira, 13 bitrina jarriko dira: Giza anatomiaren modelo

orokorra, gizakiaren ezkerreko belarriaren modeloa, gizakiaren eskuineko begiaren modeloa, txirrista (indar zentrifugoa aztertzeko), tribometroa, (marruskaduraren legeak frogatzeko), Charles-en aparailua (Torricelliren Teorema Hidrodinamiko frogatzeko), azkonarra (*Meles Meles*), Sai arrea (*Gyps fulvus*), Korokoro gorria (*Eudocimus ruber*), Hartz arrea (*Ursus*

*arctos*), Erlearen anatomiaren modelo orokorra, Ertamerikako molusko itsastarrak eta Mineralogia eta Paleontolojia sailtako mostra txikia.

Erakusketa zabalik izango da aste barruan arratsaldeko 6etatik 9etara eta larunbat, igande eta jaiegunetan eguerdian 12etatik ordubietara eta arratsaldez 6etatik 8etara. Era berean, erakusketak zabalik irauten duen bitartean Bergarako ikastetxeetako OHoko 7. mailako ikasleentzat bisita gidatuak antolatuko dira goizez. ■

### Udazken Kulturala

#### ■ Kuartettilaulajat abesbatza

Ostirala, 27, arratsaldeko 8etan Mariaren Lagundiko elizan.

#### Egitaraua:

"Alta trinita beata". Anonimoa.  
"Ave Maria". T. Luis de Victoria.  
"Salmo 23". Franz Schubert.  
Ascend my soul". Taneli Kuusito.  
"Misa Mi-Mi". Johannes Ockeghem.

#### Zuzendaria:

Klaus Rautawaara.

#### ■ Pablo Sorozabal boskotea

Larunbata, 28, arratsaldeko 8etan Mariaren Lagundiko elizan.

#### Egitaraua:

"Divertimento". J. Haydn.  
"Four miniatures". M. Ellerdy.  
"Noruegako dantzak". E. Grieg.  
"Pastoral". G. Pieme.  
"Quinteto en forma de coros". Villa-L.

**Azken 3 urtetan egindako berrikuntza lanen zati bat erakutsiko da**

**PINTURAS BERGARA**

**P  
B**

anerreka, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •  
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...



## Bergarako UNED/EKD: RIP? Ez horixe!!

Badaukat bai nik zer eskertua UNEDi. Institutua bukatuta Unibertsitatera bidean jarri nintzeanean, ez nuen erreza izan aukeratzea. Baserriko martxari ahal nuen heinean segitzea nahi nuen, baina gustoko karrerak ikasteko etxetik oso urruti joan behar, are gehiago Bergarako puntan egonik. Baina hortxe zegoen UNEDA, etxetik bertatik, ikasketak norberak antolatuz, goi-mailako ikasketarako aukera ematen zuena. Eta hala, UNED gazte hartan ekin nion Zuzenbideko ikasketari. Astean behin izaten genuen klaseari, azelako estimazioa ematen genion! Eta zela eskertu irakasleak kontsultak egiteko bertan prest eduki ahal izatea! Hala ere gehiago komeni, baina beste Zentro batzuetan hori ere ez zegoela eta... pozik! Orain esan dezaket, Bergarako UNEDak eskeintzen zituen abantaila haiek izan ez balira, seguru asko oso zaila suertatuko zitzaidalda ikasketak amaitzea, bakarrik eta inolako laguntzarik gabe ikastea ez baita erreza!

Baina UNED ez zen hori bakarrik! Han txokotxo batean, umil baina jakintsu, euskera eta euskal kulturaren zirrikitu guztiak ezagutzen zituzten erletoak zeuden. Eurei esker ikasi nuen, dagoneko bihotzean nekarren euskera benetan maitatzen, bere iraupena nere bizitzako ardatzetako bat bihurtzeraino. Garai hartako D titulua atera, Sakontze maila egin eta aurrera ere mundu horretan gehiago murgiltzeko hainbat aukera izan ditut, bere mailagatik beste inon aurkituko ez nituenak.

Bai, Bergarako UNEDek, ni bezelako beste hainbati (langileei, presoei, garai batean ikasteko gogorik ez zeukatenei, edadetuei...) eman dio "jakinburia" den altxorrik preziatuen horretaz jantzeko aukera, distantziako irakaskuntzari eta euskal gaietako esparruari merezi duen duintasuna emanaz. Baina ez hori bakarrik; distantziara ikasteko Euskal Unibertsitate baten ezean, Euskal Depar-

tamentutik eskeini izan diren maila altu eta prestijiodun euskal ikasketak UNED honen erreferentziagune izanik, UNED euskaldun batez ere amets egin arazi digute.

Eta nola ahaztu honek guztiak Bergarari eman izan dion bizitasuna eta prestijioa, Administrazio boki urruti gauden herrioi ematen zigun zerbitzua eta euskal gaietan hain urrutiraino zabaldu duen itzala! Orain arteko zurrumurruak sinisteko baino gogorragoak iruditzen zitzaizkidan. Orain, erabakia azkar atzera bota ezean, behala egi bihurtuko dira: akabo Euskal Kultur Departamentua! Gero eta gehiago indartu beharreko euskera eta euskal kulturaren hedapenerako etxeak, ateak itxita! Goi mailako unibertsitatea guztiz ahaldua! Kitto irakaskuntzari gutxieneko kalitatea ematen zioten zerbitzuak! Nork izan dezake ikasten segitzeko gogorik?

Eta UNEDen bultzatzaile handiena izan behar zuena, Bergarako alkatea, bere hiltzaileetarako bat bihurtu da. Nola azalduko diezu, Bitoriano, biharko UNED/EKDko ikasle izango zirenei, Udaletxea ia mila milioi kostatzen zen urtean, Plazaren beste aldean, herri ororen zutabea den kulturari 10 milioi ukatzeagatik ikastera kanpora joan beharko direla?

Bitoriano, EAKo zinegotziak (Diputazioan erabakia hartu duenaren partidukideak), zuen esku dago: geroan ere bergararrek nik eduki ditudan aukerak izan ditzaten, salba dezagun UNEDA!

### MAITE ARISTEGI

#### Bahitutakoak asko dira

Milaka bahitu daude Euskal Herrian aspaldiko urteetatik hona gartzelatan, atzerrian, deportatuta... Hala ere, badirudi hemen ez dela inor enteratu. Orain, berriz, duela hilabete gutxi beste pertsona bat bahitu dute eta, bapatean, horrek zenbait pertsonaren bizimodua guztiz aldatu du eta

hor hasi dira egin ahal guztian bera askatzeko eskatzen. Gu, Bergarako Senideak, urte askotan gabiltza bahiketa horien aurka mobilizatzen eta giza-eskubiderik oinarritzkoenak (preso egon arren, besteok bezalaxe dituztenak) zapalpen zaizkiela salatzen.

Norbaitek kasu egin al digu?

Inon diren ate guztiak jo ditugun arren, alde guztietan ezezkia baino ez dugu jaso, inork ere ez digu arreta txikiarik ere eskaini, ez Udalak, ez alderdi politikoek, ez elizak, inork ere ez. Batzuk hitz onak baino ez dituzte izan eta beste batzuk barre egin digute aurpegira.

Orain denak asaldaturik dabilta eta kalera irten dira baina pertsona bakarraren askatasuna eskatzeko. Guzti horiei gogoratu eragin beharko genieke Bergaran 15 preso, 2 deportatu eta konfinatu bat daudela, eta guztiak ere bahituta daudela. Horregatik, Senideok, orain arte asteartean egin izan dugun enkartelada aurrerantzean astelehenetan egingo dugu Euskal Herria Askatukoekin batera, Gesto por la "Paz"-ekoei gogoratzeke gure senideek preso jarraitzen dutela, bahituta, hemendik milaka kilometrotara, gaisotasuna, tortura, laguntzarik eza, etab. jasaten dutela. Une honetan gure herriko bi preso (Etxebe Jaenen eta Kanto Sevillan) gose-greban daude beren eskubideak errespetatzeko eskatzen eta ez diote kapritxo bategatik jateari uko egin. Beste bideik ez zutelako heldu behar izan diote horri bide legal guztiak agortu baitituzte.

Gure galdera hauxe da:

Jende honek salatuko ote du herriaren aurrean, gartzelatan giza-eskubideak zapalpen direla? Eskatuko al dute herri guztiak entzuteko moduan presoen dispersioari amaiera ematea. Guk aurrerantzean ere kalean jarraituko dugu.

Presoak Euskadira!! Etxean nahi ditugu!!

SENIDEAK. NAN: 15.356.747

## Tiira biraka

## GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ





◆ **62 urteko kartzela zigorra**

Madrileko Entzutegi Nazionalak 19 urte eta 4 hilabeteko kartzela zigorra ezarri die Jose Javier Lazkano eta Iñaki Arietaleanizbeaskoa bergararrei ETako partaide izan eta hainbat enpresariri dirua exijitzeagatik. Luis Etxeberriak 18 urteko kartzela zigorra jaso du delitu beragatik eta Jose Ramon Aiastuik, berriz, sei urtekoa aurrekoekin kolaboratzeagatik. Era berean, sententziaren arabera, deitutako enpresari bakoitzari (8 guztira) milioi bana ordaindu beharko diote laurek.

◆ **Bedelkar**

Bedelkarrek azaroaren 7, 8 eta 9rako "Reducción de gastos" ikastaroa antolatu du. Klaseak 14.30etan Kultur Etxean izango dira. Izen-ematea 76 04 68 telefonoan.

**HILDAKOAK**

- Maria Angeles Sastigutxia**  
Urriak 19, 91 urte
- Jose Maria Luarizaristi Iñarra**  
Urriak 20, 67 urte
- Maria Arretxe Dondiz**  
Urriak 21, 90 urte
- Juan Iturralde Galdos**  
Urriak 22, 83 urte

**JAIOTAKOAK**

Aste honetan ez dute jaiotakoen berrik jaso Bergarako Epaitegian.

# Arkauten dira ETakoak izatearen akusaziopean atxilotutakoak

**Iñaki** Arenaza Garitano 25 urteko bergararra eta Juan Jose Aranburu (33 urte) eta Patxi Olabarria Iza (24) antzuolarrak atxilotu zituen Ertzaintzak asteartean goizaldean ETaren kolaboratzaile izatearen akusaziopean. Beraiekin batera Oñatiko bi gazte ere atxilotu zituzten. Baltasar Garzón epaileak agindu zituen atxilotetak eta detentatuak Madrileko Entzutegi Nazionaletik pasako dira egunotan.

Jaurlearitzako Barne Sailak jakitera eman duenez, inbestigazioak udan hasi ziren. Orain atxilotutako bik Turreta (Bizkaia) inguruan ETaren buzoi baten lokalizazioaren inguruko informazioa jasotzen zutela ohartu zen polizia. Ertzaintzak egindako inbestigazioak ETaren aktibitate lojistikoe-tan parte hartu eta ETari laguntza ematen zioten beste 3 pertsonaren atxilotzea ekarri du. Astearte goizaldean Ertzaintzak 9 errejistro egin zituen atxilotetak burutu ahal izateko. Gestorek, atxiloteta hauek PP alderdiak eta ABC egunkariak Barne Sailari egindako kritiken ondoren gertatzea salatu zuten.

Iñaki Arenaza oso



Iñaki Arenazak silbotea jotzen du Udal Txistulari Bandan.

ezaguna da herrian, izan ere Udal Txistulari Bandako edota Xamatx dantzataldeko partaide ba-ta. Bestalde, Patxi Olabarria antzuolarrak Bergarako Udal Musika Bandan eta Orkestra Sinfonikoan jotzen du. Oraindik ez da zehaztu zehazki zein kargu inputatzen zaien, baina dirudienez korreo edo enlaze lanak egiteagatik atxilotu dituzte.

**Protesta ekintzak**

Astearte eta asteazken iluntzean Bergaran atxiloteten kontrako manifestazioak izan ziren eta asteazken goizean Ipin-tza eta Miguel Altuna institutuetak ikasle talde batek ere beren protesta

azaldu zuen. Bestalde, herriko hainbat lekutan pintadak azaldu dira egunotan. Udaletxearen atzekaldean, esaterako, "Zipayoak españolak. Iñaki askatu. Detentatuak askatu. Gora ETA" irakur zitekeen asteazkenean.

Antzuolako Amnistia-ren Aldeko Komiteak idatzi bat bidali digu. Beste-ak beste, Ertzaintzaren jorkaera salatzen dute; "Espainiako gobernu eta justiziaren agindupean eta diruaren truke edo-zertarako daude. Baina berri honetan denok dakigu zeintzuk diren gaizkileak eta zeintzuk Patxi, Pollero, Iñaki, Iker eta Iñaki; egunero ezer ordainik barik berri honen alde lan egiten dutenak".

**NEKAZAL ZENTRUA**

**OTXOA, E. M.**

**BANATZAI LEAK**



**MUSAKOLA, 2**  
Industria poligonoa  
Arrasate

Tfnoa: 79 17 79 - 79 86 70  
Faxa: 79 15 48



### ◆ Jubilatuen eguna igandean Osintxun

Igandean Jubilatuen eguna ospatuko da Osintxun. 11.30etan Soraluzeko Parrokiko abesbatzak lagundutako meza izango da, jarraian Udal Musika Bandaren emanaldia eta 14.30etan bazkaria Txuringon. Bazkarirako txartelak (2.800 pta.) Osintxuko tabernetan eros daitezke.

### ◆ Pintura lehiaketa Antzuolan

Kultur Taldeak antolatuta, aire zabaleko pintura lehiaketa izango da igandean Antzuolan. Bertan edozein afizionatuk parte hartu ahal izango du eta lanen zigilatzea goizeko 9etatik 10.30etara egingo da Udaletxeko Areto Nagusian. Irabazlearentzat 80.000 pta.ko saria izango da, bigarrenak 65.000 eramango ditu, hirugarrenak 50.000 eta lehen bi antzuolarrentzat 20.000 eta 15.000 pta.ko sariak egongo dira.

### ◆ HBren oharrak

Gaur ostirala, Oldartzen prozesuaren bigarren fasearekin jarraituz, herri batzarra izango da 18.45etan Arrano Zaharrean. Bestalde, astelehenean, urriak 30, 19.30etan izango den Plenoan, Bergarako presoei buruzko mozioa aurkeztuko du HBk eta jendeari bertara joateko dei egiten dio.

### ◆ Perretxiko erakusketa

Urriaren 31n Jubilatuetan egingo den perretxiko erakusketan parte hartu nahi dutenek Jubilatuetara eraman beharko dituzte perretxikoak urriaren 30eko arratsaldeko 4ak baino lehen.



Zerrajerak Labegarrietan zituen lursaitetan eraikiko da Bergarako Industrialdea.

## Bergarako Industrialdea eratzeko akordioa onartuta

*SPRI erakundeak baietza eman dio Industrialdeari*

Industria Promozio eta Errekonbertsiorako SPRI Elkarteko Administrazio Kontseiluak Bergarako Industrialdea Elkartea eratzeko akordioa onartu zuen. Horren bidez, industria iharduerak bultzatu nahi dira Zerrajerak Altos Hornosen zituen terrenoetan. Elkarreak, printzipioz, 10 milioi pezetako kapitala izango du eta Gipuzkoako beste industrialdeetan egin den bezala, SPRIk % 51 jarriko du, Gipuzkoako Diputazioak %24,5 eta Bergarako Udalak, berriz, gainontzeko %24,5. Elkarreak lur industrialik ez duten herriko enpresak eta kanpokoak erakartzeko helburua izango du. Altos Hornoseko industrialdearekin Bergaran industria garapena bultzatu nahi da. Pabiloi berrietan egingo den hasie-

rako inbertsioa (1996tik 1999ra bitartean) 893 milioi pezeta ingurukoa izatea espero da. Alokatzeko jarriko diren terrenoek 15.000 m<sup>2</sup>ko azalera izango dute, bulegoetarako 100 m<sup>2</sup> izango direlarik. Terrenoak alokatzen dituztenek erosteko aukera izango dute etorkizunean.

Bergarako Udalak, Kutxak eta Lucio Arregik 1994an sinatutako hitzarmenaren arabera, promozio pribaturako zuzendu daitekeen beste 24.000 m<sup>2</sup>ko area bat izango da. Akordioan jasotzen denez, laminazio eta txapa pabiloi zaharrak eta bulego eta perfil laminazio pabiloi-ko fatxada daudenetan mantenduko dira. Horrela, Zerrajerako balore arkitektonikoak mantendu nahi dira.

# Iturkintz Berri

**INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa**

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

# LARREA

## TABERNA

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA



# Kritikak egin dizkio Herri Batasunak Udal Gobernuari

*"Tripartitoak jarrera baztertzailea du gurekiko"*

Herri Batasunako zinegotziek prentsaurrea eman zuten astelehenan Udaleko Gobernuaren lehen balorazio bat egiteko. Maite Aristegik azaldu zuenez, *"tripartitoak jarrera guztiz baztertzailea azaldu du gurekin eta ez dago eztabaidarako aukerarik ere oso triste da. Gure iritzia ez dute ezertarako kontutan hartzen"*.

Bestalde, udal zerga eta tasenigoerari buruz ere beren iritzia plazaratu zuten. Aristegiren hitzetan, *"tasetan ere jarraipen eta kontinismoa eman da. Aurreko urteotan inbertsio maila gehiegizkoa izan da Bergararentzat, gure posibilitateetatik nabiko urrun geratzen zelarrik. Gainera, eskeintzen diren zerbitzu eta tasen artean desoreka dago, zerbitzuak hobetu beharra dago. Gu IPCaren igoerarekin ados gaude baina Udalak ez du ezer egin diru-sarrerak aragotzeko"*.

HBk, pasa den asteko plenoaren inguruan, argipen bat egin nahi izan zuen: *"baserritar eta postu fajokoen igoeraren kontra botatu genuen eta ambulanteen prezioei eustearekin ados azaldu ginen"*. Bukatzeko, Agurne Barrusok Victoriano Gallaste-

gi alkateak UNEDeko gaiarekin azaldu duen jarrera salatu zuen: *"alkatea izanik, lotsagarria iruditzen zaigu honelako zentro bati ibes egiten uztea. Eta dirua ez da aitzakia, UNEDi Udalak 10 milioi ematen baitizkio eta alkatearen soldata 7 milioiokoa delako. Itxuraz, euskara eta bezkuntza ez dira lehentasuneko gaiak beraientzat. Bestalde Bergarako EAren iritzia jakin nahi genuke, kultur diputatua beren alderdikoa baita"*.

Bukatzeko, Herri Batasunako zinegotziek batzordeetan plenoetan gertatzen dena errepikatzen dela adierazi zuten: *"gure iritzia ez dira ezertarako kontutan hartzen. Bestalde, batzordeetan ikusten dugun ganora eskasa salatu nahi dugu"*.



Herri Batasuna ez dator bat Udal Gobernuak egindako lanarekin.

## ◆ Alkatearen bandoa

Kontutan izanda zaborrak ateratzeko ordutegia gero eta gutxiago errespetatzen dela, herria txukun eta ahal den politena edukitzea guztion ardura dela gogoratzen du alkateak.

Zaborrak horretarako zehaztutako orduan, gaueko 9etatik aurrera, atera behar dira eta ordutegi hori errespetatzen ez duen norbait ikustekotan Udal honen aurrean salatzea eskatzen da Bandoan.

## ◆ Oporretako argazkien lehiaketa Antzuolan

Antzuolako Udaleko Kultura Batzordeak oporretako argazkien erakusketa deitu du. Bertan antzuolar guztiak parte hartu ahal izango dute eta, adinaren arabera, 3 kategoria bereiztuko dira. Kategoria bakoitzeko bi lan onenak sarituko dira. Lanak entregatzeko epea azaroaren 24an amaituko da eta aurkezten diren argazki guztiek (gutxienez 18x24 zm. eta gehienez 30x40 zm. koak) erakusketa egingo da Udaletxeko Areto Nagusian abenduaren 1etik 3ra bitartean.

## ◆ AEKko zozketa

AEK Egunean egindako zozketan honako zenbakiak izan dira sarituak: 55.784 zenbakiak jasoko du lehen saria eta 62.601 zenbakiak bigarrena.

## ◆ UNEDeko ikastaroa

UNEDeko Euskara Departamentuak autobiografia ikastaroa antolatu du larunbat goizetarako. Argibideak 76 13 42 telefonoan.

**GALLASTEGI**

*Jostundegia*

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA





Estepan Plazaola, Koldo Pereira eta Pili Azkarate asteazkenean emandako prentsurrekoan.

## "Euskara merkatal mundura" kanpaina aurkeztu da

**Asteazkenean aurkeztu zen Udaletxean "Euskara merkatal mundura" izeneko kanpaina. Plangintza hau iaz jarri zen martxan Gipuzkoako 6 herritan (Billabona, Ibarra, Ordizia, Orio, Tolosa eta Zizurkil) eta aurten Hernani, Lasarte, Lezo eta Bergara gehitu zaizkie.**

Estepan Plazaola Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak prentsurrean adierazi zuenez, "helburu nagusia herriko komertzioetan euskararen presentzia indartzea litzateke. Hori lortzeko orain 2 urte komertzioen inguruko azterketa egin genuen eta aurten plangintza horri heldu diogu berri,

iaz ezin izan bait genuen aurrera eraman". Plazaolak azaldu zuenez, "450 komertzio aztertu ziren guztira (zentzu zabalean hartuta, akademiak eta borrelakoak ere kontutan hartuz). Emaitzei dagokienez, euskara jakite aldetik, dendarien eta herritarren batzbestekoa antzekoa dela ikusi zen, %65ekoa bain zuen ere. Abozko erabileran ere denda mundukoa eta kalekoa antzeko da, baina euskara idatziaren presentzia nabiko bajua da denda munduan".

### Euskara ikastaroak

Oraingo honetan Udalak erabilera bultzatzeko eskaintza batzuk egingo

dizkie dendariei. Amaia Agirre eta Mireia Larrañaga bergararrak izango dira komertzioz komertzio eskaintzak egingo dituztenak. Horrela, 30 orduko merkataritzako euskara ikastaroa (astero ordu t'erdiko klasea) egiteko aukera izango dute dendariak komertzioetan gehien erabiltzen diren hitz, esaldi eta idazkiak euskaraz idazten jakiteko. Bigarren aukera merkatarientzako euskalduntze eskolak lirateke. Bertan euskaraz ez dakitenei euskalduntzeko lehen pausuak erakutsiko zaizkie eta

ikastaroa urtarriletik ekainera bitartean emango da, astelehen, asteazken eta ostiraletan goizeko 8etatik 9.30etara eta arratsaldean 14.30etatik 16.00etara. Era berean, Euskara Zerbitzuak euskarazko testuen zuzenketa, erdarazkoen itzulpena eta hizkuntza aholkularitza eskeiniko die herriko komertzio guztiei. Azkenik, harremanak euskaraz izango dituzten establezimenduen taldea osatu nahi da.

Pili Azkarate Bedelkareko idazkariak esan zuenez, "prest gaude plangintza honetan kolaboratzeko eta dagoeneko idatzi bat bidali zaie dendari guztiei proiektu honen informazioa emateko". Estepan Plazaolak azpimarratu zuenez, "komertzioko litzateke jendea laguntza eskatzen obitzea. Inpreso, boltsak eta borrelakoak euskaratzea aurrerapausu bat izango litzateke eta dendariei gure kolaborazio osoa daukatela adierazi nahi diegu. Emaitza onak lortu daitezkeela uste dugu. Ikusi behar nola erantzuten duen jendeak".





# Antzuolako Udalean lan eta berba euskaraz

**Antzuolako Udalean orain dela lau hilabete jarri zen martxan euskara erabiltzeko plana. Administrazioan euskara erabiltzeko plan hau aintzindaria da. Planari buruz Mikel Larrea Antzuolako alkateak hitz egin digu.**

- Zeintzuk dira plan honen helburu nagusiak?

- Batetik, Udalaren barruan, hau da, batzordeetan zein zerbitzuetan, euskaraz lan egitea; bigarrenik, herritarrei, herriko elkarteei, enpresei, dendariei, e.a. zerbitzua euskara egokian eskaintzea euren parte-hartzea indartzearekin batera; eta azkenik, Euskal Autonomia Elkarteko administrazioekin, hornitzaileekin eta gainontzekoekin lanak euskaraz bideratzen hastea. Orokorrean, bizitza euskaraz egitea da helburua.

- Praktikan nola gauzatzen da plan hori?

- Agintariei dagokigunean, batzordeetako hizkuntza, bai dokumentazioan eta baita ahozkoan ere, euskara izatea onartu

dugu agintari guztiok. Ondorioz, gai-ordenak, aktak eta gainerakoak euskaraz sortzen dira eta

gero ez dira itzultzen barne erabilerarako.

- Eta Udaleko langileekin zer?

- Zerbitzuetan euskararen erabilera errotzeko lau ekintzabide nagusi bereiztuko nituzke: langileen hizkuntz maila hobetzeko euskara-teknikariaren laguntza programatua; beharrezkoena den materiala euskaraz

gertatzea; materiala bildu ostean kanporako nahiz barrurako dokumentuak euskara egokian eta ulertezenez gertatzea; eta azpiegitura informatikoan hizkuntz aukera haunditzea.

- Herritarrei dagokienez, nola jokatu duzue?

- Helburua herritarrei zerbitzu egokia ematea da eta,aldi berean, herritarrak, elkarteak, enpresak, komertzioak e.a. euskarazko zerbitzua erabiltzera bultzatzea. Era berean, eurek ere eskariak, dokumentazioak eta gainontzekoak euskaraz bideratzea lortu nahi da.

- Udalerritik kanpo harremanak nola gauzatzen dituzue?

- Antzuolatik kanpo ere harremanak euskaraz bideratu nahi dira, batez ere Euskal Autonomi Elkarteko administrazioekin. Hori gauzatzeko dokumentazio gehien bidaltzen edo sortarazten duten erakundeekin hitzarmenak egin nahi dira, joan-etorriko komunikazioa eta dokumentazioa euskaraz egin dadin.



Antzuolako Udaleko langile eta agintari guztiak dakite euskara.

## Mikel Larrea: "Bizitza euskaraz egitea da helburua"

### ETXAGI

J A T E T X E A

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

### Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.  
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



# Heziketa

## Baloreen heziketa

**- Zer litzateke baloreen heziketa?**

- Arrazonamenduaren garapenarekin eta adinarekin lotuta dago baloreen heziketa. Gu, irakasleok, hori emateko baldintzak lortzen saiatzen gara. Baloreen heziketa, adoktrinamendu edota modu demokratiko edo zientifikoago baten bidez egin daiteke. Azken batean baloreak kontrajarri eta eztabaida sortzea da helburua eta gure lana eztabaida horretan laguntzea litzateke.


**- Eta zeintzuk dira emaitzak?**

- Ikasleek beraien iritzi edota sentimenduak adierazten ikasi behar dute eta horretarako oso garrantzitsua da entzuten dagoenaren jarrera (begirada, ulermena... etab.), atentzioa jarriz eta besteak esaten duena ulertuz. Bakoitzak onartu behar du bere barruan daukan baloreen egitura eta horrekin besteen baloreak kontrajarri.

**- Zeintzuk dira balore horiek?**

- Denak. Hala ere, baloreetan 3 estadio bereizten dira: egozentrikoa le-

hena, hortik taldeko ikuspuntuak onartu eta defenditzera pasatzen da eta, azkenik, ikuspuntu unibertsalak deiturikoak (oso jende gutxi iristen da horietara) leudeke. Guk estadio batetik bestera igarotzen lagundu behar diegu ikasleei. Dauden konfliktoak azaldu eta horri buruz berba egiten lagunduz eta ikusi ea beraien artean konklusio batera iristen diren.



**JUAN CARLOS GOÑI**  
(Irakaslea)

sio batera iristen diren.

**- Moderadore lanak azken batean...**

- Bai, arrazonamenduak argituz, zehatzuz edota galderak eginez (ez zuzendutakoak, beraien esaten dutena argitzeko bakarrik). Batez ere le-

### "Ikasleek beraien iritzi edota sentimenduak adierazten ikasi behar dute"



OHOko irakasleek lan garrantzitsua dute ikasleei baloreak hezitzerako orduan.

hen aipatutako 2. estadio horretan mugitzen gara eta besteen ikuspuntua ulertu eta beraien egoeratan jartzen ahaleginduta behar gara.


**- Ikasleek erraz asimilatzen al dute hori?**

- Zenbat eta arrazonamenduaren prozesua maila altuagokoa izan, orduan eta errazago egingo zaie besteena ulertzea. Horrela beren baloreen estruktura eztabaidan jartzten dute eta errespetua edota aditasuna jarriz eztabaida aberasgarriak ematen dira. Horrela, lagunekin, gurasoekin, anai-arrebekin edota bere buruarekin eztabaidak ematen dira, bere baloreen estruktura eratzen joaten delarik.

**- Hori da helburu nagusia, beraz...**

- Eskolan, unidate didaktiko programatzen hasterakoan 3 helburu klase proposatzen ditugu: helburu kontzeptualak (zer ikasi, sakontasun maila... etab.), prozedurak (helburu horiek lortzeko metodologia) eta jarrerak (zelako jarrerak lortu behar ditugun ikasleengan).

Azken honetan sartuta egongo lirateke baloreak eta arlo guztietan kontutan hartzen dira, azkenean bizitzeko trebetasunak lantzen baitira, bizi guztirako balioak direnak gainera.



Matxiategi

Elektragintza

C.B.

**ELEKTRIZITATE**

**MATERIALEN**

**SALMENTA ETA**

**INSTALAKUNTZA**

Fleming Doktorea, 5

☎ 76 19 94

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE





Reimsetik etorritako ikasle eta irakasleak harrিতuta geratu dira hemengo irakasle eta ikasleen arteko harremanekin.

# Reimsetik Bergarara

## 11 neska frantziar gure artean

Atzo zortzi etorri ziren eta bihar joango dira Reimsetik etorritako 11 administratibo ikasleak. Martxoan Miguel Altuna institutuko administratibo moduloko ikasleak izan ziren Reimseen eta orain hangoak etorri dira gure herrira.

Frantzia iparraldean, Paristik 134 km.ra eta Champagne Ardenne erregioan dagoen hiria da Reims. Besteak beste 7 unibertsitate eta ardo eta txanpan sonatuak dituen hiria da. Libergier Reimseko institutu bat da eta bertan ari da lanean gaztelera erakusten Lierni Mujika bergararra.

Honela, iazko gabonetan Liernik Miguel Altuna institutuarekin interkanbioa egiteko aukeraz hitzegin eta dena prestatzen hasi

ziren. Pili Arinek adierazitakoaren arabera gogorra izan da interkanbioa lortu ahal izatea. *"Bigarren mailan ikusten gaituzte,*

**Helburua da ikasketen analisi konparatiboa egin eta bizimodu desberdina ezagutzea**

**Kizkur**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**  
 Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

AGENTZIA:  
**J. ELKORO**  
 Ibargarai, 2 behea  
 Tfnoa: 76 57 85  
 BERGARA

VITA  
 CAUDAL  
**ZURICH TALDEA** ASEGURUAK

ZURICH  
  
 UNIBER  
 HISPANIA



## Reimsen gaztelera irakaslea den Lierni Mujikak egindako proposamenari esker gauzatu ahal izan da interkanbioa

*Pirinioetatik beherakoa Afrika dela uste dutenez nabiago dute barremanak ipar europarrekin izatea. Elkarrizketa serioak izan ditugu baina azkenean lortu dugu interkanbioa gauzatzea".*

### Beste errealitate bat

Pili Arinek dioenez interkanbioaren helburua administratibo arloko ikasketen analisi konparatiboa egin eta bizimodu desberdina ezagutzea da.

*"Orain arte ikasketei zein lan munduari dagokionez gure muga hemen zegoen. Gaur egun, ordea, ikuspegi zabalagoa izan eta mugak zabaldu eta kanpora joateko prest egon behar dugu. Interkanbio honen helburua, beste herri bat ezagutzea eta kanpoan gu bezalakoak direla ikustaraziz beldurra kentzea da. Horretarako azterketa konparatibo bat egin dugu: beste enpresa batzuk ikusiz, lan egoera aztertuz, gizartea ezagutuz..."*

### Martxoan Reimsen

Miguel Altunako Administratibo moduloko 4 ikasle (Mireia Larrañaga, Ana Serrano, Leire Arbelaitz eta Ainhoa Menika) Caridad Orozko irakaslea, Pili Arin ikasketa burua eta Iñaki Larrañaga zuzendariordearekin Reims-era joan ziren martxoko azken 10 egunetan. Leirek eta Mireiak diotenez esperientzia positiboa izan zen. *"Oso jende desberdinarekin egon ginen. Gure aldean oso independenteak dira; ikasketak bukatu orduko, nabiz eta lanik ez izan, gurasoen etxetik irten eta euren bizitza egiten hasten dira. Harrituta ere*


*geratu ginen ban ikusitako zenbait gauzarekin. Esate baterako, administratiboko ikasle guztiak neskak dira, ez dago mutilik eta gainera normalizatzen jutzen dute. Emakumearen eta gizonezkoaren rola oso finkatuta dituzte. Itxurari dagokionez, berriz, ikaragarriko garrantzia ematen diote, eskolan horri buruzko klaseak ere ematen dituzte. Ikasketei dagokionez ez dago alde handirik, dena den, bizkuntzek duten garrantziaz jabetu ginen"*

### Reimsetik Bergarara

Reimseko Libergier institutuko ikasleek frantsesaz gain bi hizkuntza ikasten dituzte: inglesa eta gaztelera edo alemaniera. Honen arabera, egonaldi bat eta lan praktikaldia egin behar izaten dute aukeratu duten hizkuntza egiten den herrian. Beraz, Libergier institutuak interkanbioetan badu esperientziarik, Donostiako ISArekin, esaterako, badute hartu-emanik. Bergarara etorri direnek (19-20 urteko 11 neska eta bi irakasle; Lierni Mujika eta Chantal Ruggieri) lehen interkanbioa dute.

### 10 egun

Reimseko lagunak ostegunean iritsi eta bihar itzuliko dira Frantziara.



Paisaia, jendearen izaera eta janaria "chapeau" dela diote frantziarrek.

**Siaska**

Dena zure  
Inkurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

**ZAPELAITZ**

**Taberna**

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA



Egonaldia Migel Altuna Institutuko irakasle eta ikasleen etxeetan egin dute. Egun hauetan Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Arantzazura egindako bisitez gain, besteak beste zenbait enpresa ikusteko aukera izan dute: Algodonera, Balzers-Elay eta Arrasateko kooperatibak. *"Asteburuan libre izan genuen, familiakoekin eta ibili ginen, eta primeran pasa genuen. Poteatzeko duzuen obitura asko gustatu zaigu"*.



Frantziarrak geure ohiturak ezagutzeko aukera izan dute.

**Ustekabe atsegina**

Ez zuten uste hau horrelakoa izango zenik. *"Oso paisaia ederra duzue, itsasoa, berdeguneak eta oro har dauden koloreak... Etxeak ere asko gustatu zaizkigu, eta nola ez, janaria! batez ere patata tortila, arrain zopa eta urdaiazpikoa. Bestalde, udaletxean egindako harrerak harrituta utzi gintuen. Jendea oso atsegina eta alaia da; jendearen artean harreman handia dago, kalean mundu guztiak elkar agurtzen du..."*.

Ustekaberik handiena hemengo irakasle eta ikasleen arteko harremanekin izan dute. *"Han jerarkia oso markatua dago, irakaslea goian dago eta ikaslea behean, ez dugu inolako harremanik. Han irakasleari zuka bitzegin beharrean "vous" edo "Madame eta*

*Monsieur" bezala deitu behar diogu. Hemen aldiz, irakasle eta ikasleen arteko harremana beroa da eta ez dago desberdintasun nabarmenik. Ez genuen espero zuzendaria amantala jantzita sukaldean ikustea, irakasleak ikasleekin batera jatea, denak batera ibiltzea... Han ez da horrelakorik gertatzen"*.

**Esperientzia errepikatu**

Reimseko ikasleek ikasketak aurten bukatuko dituzten arren Bergaran ezagutu duten jendearekin hartu-emanetan jarraituko dutela diote. *"Orduan ez gara eskolan egongo baina Bergarara itzuliko gara"*. Martxoan

Reimsen egondako Bergarrek Reimseko esperientzia ere ahazteazintzat dute. *"Datorren urtean Reimsera joateko aukera dutenek aprobetxatu egin beharko lukete"*.

Bestalde, Pili Arinek etorkizunerako duten asmoaren berri ere eman digu. *"Europar Batasunak ematen dituen Leonardo planeko laguntzak jasotzen baditugu gure asmoa da Miguel Altuna eta Libergier institutuan ikasketak programa bera egin eta interkanbio akademikoa egitea"*

Pili Arinen ustez esperientziak jarraipena izango du. *"Zailena eginda dago, lehenengo aldia izaten da txarrena. Lan handia egin behar izan dugu, errazagoa da kla-*

*seak ematera mugatzea, baina kalitate oneko heziketa profesionala eta erakargarria eskaini nahi badugu, horrelako iharduerak ezinbestekoak dira; aldaketak sartu eta eskaintza berriak egin beharra dago. Aldaketek eskolaren izenean (lehen Elementala orain Miguel Altuna) ez ezik eskolaren barruan ere egon behar dute. Horretaz gain, teknologikoki, ekipamendu aldetik eta irakasleriaren aldetik ere ondo prestatuta egon behar dugu. Eta guzti hori denon lana da: ikastetxearena, irakasleena eta ikasleena"*.

Interkanbioaren esperientzia administratibo departamentuan gauzatu da baina beste departamentuetara ere zabaltzea komenigarria dela dio Pilik. *"Aurrera egin eta konpetitiboak izan nahi badugu bide bonetatik jarraitu behar dugu"*. ■

**Gauzak argitu nahian**

Joan zen asteko erreportaian "Zergatik zaintzaileekin" izenburuaren azpian, Miguel Moñux eta Belen Txintxurretak adierazitakoaren inguruan zera argitu nahi izan dute Miguel eta Belenek: *"Gure izenean azaldu zen iritzia ondo jasota ez zegoenez, argitu nahi genuke nabiz eta guk bartutako aukera ez izan, haurtzaindegiaren kontra ez daukagula ezer, baizik eta gure ustez bertan eskaintzen den zerbitzua oso baliagarria eta behar-beharrezkoa dela"*


**IGARO**  
 ✓ Kosmetika eta oparigaiak  
 ✓ Eder gela  
 ✓ Bio Solariuma  
 Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

**Garnish**  
**Bitxitegia**  
 San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

**Kabutzia**  
**ARRAINDEGIA**  
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62



# Zer deritzozu jurado popularrak osatzeari?




**Ibon Arrieta**  
26 urte, langilea

Ez dakit asko horri buruz baina ez nago oso konbentzituta. Erantzunkizuna? Hori bakoitzak ikusiko du, segun ze tokatzen zaion...



**Amaia Arriaran**  
24 urte, langilea

Oso gaizki iruditzen zait, jende arruntak ez baitauka kapazitaterik epaituen etorkizuna erabakitzeko. Ez dut uste horretarako prestatuta gaudenik.




**Jose Sasieta**  
61 urte, langilea

Nere ustez txarto aterako da. Hasiera behintzat txapuzeroa izango dela uste dut. Euskal Herrian sikiera baina Estatuan gehiengoak ez du kriteriorik.



**Marisol Aranes**  
50 urte, langilea

Nik ez dut ondo ikusten besteen erabakiak norberak hartzea. Alde batetik ondo dago baina lehenbizi jendea egoki prestatu behar da.



**Javi Burgos**  
42 urte, langilea

Alde batetik egia da justizia herritarrengandik datorrela baina bestalde momentuan ez dut uste prestatuta gaudenik. Ni justiziaren intsumiso izango nintzateke.



**Raquel Juaristi**  
28 urte, langilea

Nik uste dut ondo egon daitekeela. Hala ere neure burua ez dut prestatuta ikusten baina printzipioz ideia ona iruditzen zait.

LARUNBATETAN

LARUNBATETAN

**INGELESA eta ALEMANA**

KLASEAK HASTEAR DAUDE

APUNTATU ZAITEZ, ORAINDIK EZ BADUZU EGIN!!

LARUNBATETAN • LARUNBATETAN • LARUNBATETAN

9.30 - 12.30

9.30 - 12.30

9.30 - 12.30

Araba Etorbidea, 4  
ARRASATE



**CIM**

HIZKUNTZAK

Telefonoak:  
79 01 32 / 79 65 54

**LARRAÑAGA**  
eta **ZUBIA**  
**Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olio, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Taberna Kafetegia

**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA





## AEK eguna

Joan zen igandean Zumaiara gerturatu ginen guztiok lu-zozko AEK egun zoragarri batez gozatzeko aukera izan genuen. Eguraldia, hasieran ematen ez bazuen ere, ezin hobe izan zen. Ekitaldi nagusiari hamabiak inguruan eman zitzaion hasiera eta ondoren antzerkia, estropadak, trikitilariak, txarangak e.a. izan genituen ikusgai. Arratsaldean, seiak inguruan alegia, EH Sukarra eta Ama Say taldeek kontzertua eskaini zuten. Ikusi genuenez, jendea Euskal Herriko hainbat tokitatik gerturatu zen Zumaiara. Zorionez, gero eta jende kopuru haundiagoa ikus dezakegu urteak pasatu ahala AEK Egunean.

Egunak, esan bezala, goizaldean hasi eta iluntzeraino iraun zuen. Egia esan, igandea zen, beraz ez zen eguna gehiago luzatu. Larunbata izan balitz, batzuek eguzkia irtezen ere ikusiko zuten hurrengo egunean. Larunbatean ere, badirudi batzuk, bezpera zelako aitzakia izanez, oheko izarak gutxi bota zituztela faltan, eta trikitilari eta txaranga doinuaren entzutea nahiago izan zituztela gosaldun ondoren.

Euskal jai bikaina izan arren, pertsona batzuek ez dute AEK egunera joateko ohitura haundirik, kilometroak edota Nafarroa Oinez-ek esaterako oihartzun haundiagoa daukate beraiengan. Euskararen bultzada bezalako arrazoi bat izatean, inplikazio pertsonala haunditu egin beharko litzateke, honelako ekitaldietan parte hartuz eta era berean egun zoragarri bat igarotzeko aukera aprobetxatuz.

Zumaian egon ez zineten guztiok beraz, ea datorren urtean animatzen zareten. Igande berezi bat igarotzeko aukera zabalik baitago gutzientzat. Ea ba!!

**Aitziber AZKONDO**



## Lana eta ETTa

Empresa de Trabajo Temporal izenez ezagutzen direnak hasi dira geurean azaltzen. Umetan pinatelak Gorkako pinudian bezala. Barra-barra.

Joan den urteko ekainean eman zen legea (nahiz aurretik alegial moduan baziren). Ordutik hona, Bergaran bakarrik daukagu, Eibarren lauren bat eta Arrasaten bizpahiru. Eta etortzeko direnak! Zeren, lanaren atzetik lehia latza ari da jokatzeko. Eta dirua edukitzeko eta gehiago egiteko forman dugu moldaturik gizartea. Zoritxarreko eta beharreko dirua! Eta dirua lanaren ordainez irabazten du jende apalak, eguneroko lan-sariaz.

Lanegiten dudak lekutik lan-eskari ugari ikusten da. (Eskerrak ezezagunak ditudan norberaren gozo-ozpinak). ETTak kontratatuko ditu lan-kontratu arruntaren bidez: akumulaziozkoa, lan edota zerbitzu konkreturako... Ugazaba ETTa da eta lantokia hirugarrenengo baten lokaletan izaten dute, "empresa usuaria" deritzana.

Fabrika eta tailer txiki asko ari da halatsu lana ematen. Langile asko ari da halatsu lanean. Herriko bizimartxaren errealitate bat da, errealitate ezjakina. Gai honen ingurutan iharduteko arrazoirik bada, beraz. Sindikatuek sortu zuten zarata txarra (konbenioa ugetek eta kokok sinatua da bakarrik). Alde txarrak besterik ez du, positiboa da neurrian? Balantzan jarri ezker, norberaren egarri eta goseak dute erabakitzen. Musutruk lanegin dugunok badakigu sarri gizona erregalatu egiten dela. Baina erregalatzeko ere nolanaheko egoeran egon behar izaten da: gurasoen magaletan...

**Ainhoa ALTUNA**



**LAGUN ARO**  
ASEGURUAK



**AGENTEA-DELEGATUA**

**Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

**BERGARA**  
Karrozeriak  
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

**Aldoka**  
**Maldoka**  
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA





Joan zen ostiralean egin zen Lasai-Tokin Mus eta Tute txapelketaren aurkezpena.


■ **Ordago haundira!!**

Ostiralean aurkeztu zen Lasai-Toki elkartearen **"Elkarteen arteko XXVII. Tute eta Mus txapelketa"**. Txapelketa, bihartik aurrera, datozen lau larunbatetan jokatu da eta bertan 10 elkartek hartuko dute parte. Elkartearen arteko karta txapelketa 1969an hasi zen jokatzeko eta ordutik Hermandad Pertxa 4 aldiz izan da txapelduna. Beraz, garaipen bat besterik ez zaio falta kopa eskuratzeko (5 garaipen aldizka edota 3 jarraian lortu beharra dago). Hasteko, honako

kanporaketa hauek jokatu dira: Goxo Pe-Txukun, Hermandad Pertxa-Pertxa elkarte, Santa Ana-San Miguelpe, Lasai-Toki-Aitonak eta Gorla-Artatse. Guztiak bere sasoirik onenean omen daude...

■ **Argazki rallya**

**Roberto Madariaga** zaldibartarrak irabazi du pasa den urriaren 8an jokatuako argazki rallya. Bigarren saria **Jose Luis Feo** arrasatearrarentzat izan da eta hirugarrena **Daniel Santos** bergararrak eskuratu du. Epaimahaiak bergarar onenaren saria **Agustin Gurrutxagari** ematea erabaki zuen eta gazte onenarena, berriz, Oihane Gurrutxagari. Guztira, 42 argazkilari aurkeztu ziren, bakoitzak 6 argazkiko kolekzioa aurkeztu zuelarik. Sari ematea eta proiektzioa bihar, larunbata, 19.30etan Zabalotegiko lokalean egingo da.



Roberto Madariagak "Tximiniak" gaiaren inguruan aurkeztutako diapositiba bat.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**zumelaga**

JATETXEA

**EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...**

**etorri eta galdetu!!**



*Mikel Gaztelurrutia*

PIANO ETA SOLFEO KLASEAK

(Goi mailako titulaziodun maisua)

☎ 76 50 59





■ Sute ikusgarria

Ostiral goizean sute bat izan zen **Burdiñateko** goiko garajeetan. Kotxe batek sua hartu zuen motorra erre ostean eta Zubillagako suhiltzaileak eta Ertzaintza etorri behar izan ziren sua amatatzera. Sortutako kea ikusgarria izan zen eta suteak herritar dexente erakarri zituen Burdiñate ingurura. Kotxe gidariak inolako kalterik jasan ez zuen arren, beste lagun batek susto galanta hartu zuen, keagatik ez baitzuen garajeetako irteera aurkitzen. Etxebizitzetatik beste ate bat ireki behar izan zioten. Sutearen ondorioz, kalte materialak dexente izan dira. Instalakuntza elektrikoa, fatxada edota hainbat etxebizitza kaltetuak izan dira eta galerak zenbait milioitakoa izan daitezke lehen kalkuluaren arabera.

**Zertan dihardute ba?**



**Jose Mari Galán**

(argazkian) Ipintza Institutuko 36 urteko irakaslea eta Josetxo Aranzabal 24 urteko elgetarra sarituak izan dira Eibarko Udalak antolatzen duen Indalecio Ojanguren Argazki lehiaketan. Guztira, Estatu osoko 99 argazkilarik hartu dute parte lehiaketan eta 316 argazki aurkeztu dira. Ramón Ortega elgoibartarrak eraman du lehen saria eta Galánek eta Aranzabalek aipamen bana jaso dute (guztira 8 eman dira). Bakoitzak 20.000 pza.ko saria jasoko du. Sari ematea gaur 19.30etan izango da eta erakusketa zabalik izango da Eibarko Udaletxeko Kultur Gelan azaroaren 9ra arte. Saritutako lanekin liburu bat argitaratuko da.

■ Fontsi gogoan

Giro ezin hobea izan zen larunbatean Seminarioan jokatu zen **VI. Fontsi Memorialean**. Goizeko 8etan eman zitzaion hasiera 12 orduko futbito txapelketari eta egunean zehar partidu bikainak ikusi ahal izan ziren. Azkenik, **OH Zerezos** taldeak



eskuratu zuen garaipena, finalean Oñatiko Garraxena taldeari 4 eta 3ko emaitzarekin irabazi ondoren. Hiruko saskiraketa txapelketan, **Igor Legazpiak** irabazi zuen eta bigarren postua Javi Barrionuevorentzat izan zen. Azkenik, mendiko bizikleta ibilaldian 126 lagunek hartu zuten parte eta antolatzaileak oso pozik azaldu ziren lortutako partaidetza eta sortutako giroarekin. Datorren urtean gehiago...

**BOLINTXO**

**Okindegia**

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz, 4 EIBAR  
☎ 76 63 42 ARRASATE



**ETXE BERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



# Ugutx Basauri

**Ugutx Basauri 19 urteko eta 1'89 neurtzen duen gaztea da. Geologia ikasten hasi da, egunero Bilbora joan eta etorri egiten du, saskibaloian jokatzeko eta numismatika taldeko bildumazalea da.**

- Bildumak egitea ala gauzak gordetzea?
- Biak, desberdina da eta.
- Txanponak ala billeteak?
- Txanponak, mundu osokoak eta denetarik dut.
- Bildumarik ederrena?
- Bakoitzak topatu, bildu eta landutakoa.
- Zergatik geologia?
- Bere atzean munduaren historia dagoelako.
- Fosilak topatzea gustatzen?
- Ehiza bezalakoa da, baina animalia hil beharrean berpiztu egiten duzu.
- Bergaran biziko ez bazina...
- Donostian edo Arruazun (Nafarroan) biziko nintzateke.
- Egunero joaten zara Bilbora?
- Hasieran pisura joatekoa nintzen, baina horrela gustora nabil.



*"Gauza zaharrak, lehengoak gustatzen zaizkit; munduaren historia guztia geologiak erakusten du eta horregatik hasi naiz ikasten. Fosilak topatzea ehiza bezalakoa da, baina animalia hil beharrean berpiztu egiten da".*

- Saskibaloiko jokalaria bat?
- Michael Jordan.
- Erakusketak ala filmeak?
- Biak, gauza desberdinak ikustea gustatzen zait.
- Udazkena...
- Parkera joateko eta paseatzeko sasoi polita.
- Zein hizkuntza ikasiko zenuke?
- Alemaniera, garrantzi handia izango duelako eta latina edo grekera zientzietan komenigarria delako.
- Hobe da...
- Egindakoaz damutzea eta ez egin ez denaz.
- Bidaia bat: ilargira ala Martera?
- Martera, ilargian egonda daude.
- Joku bat?
- Bi pertsonaren arteko tontea.
- Liburu bat?
- El clan del oso cavernario.
- Bizarra ala bibotea?
- Bizarra interesgarriagoa da.
- Trikitixa ala heavy-a?
- Depeche Mode, The Cure... momentuaren arabera.
- Telefonoa ala eskutitza?
- Eskutitza politagoa izan arren, idaztea kostatu egiten da.
- Erositako azken gauza?
- Txanodun jertse gris bat.
- Asteburu bat norekin?
- Lagun berezi batekin.

# Biltoki



PHILIPS



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.  
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K  
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.  
HI-FI EKIPOAK.  
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.  
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.  
DEKORAZIOAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Bidekurutzetan. 50 m2. Berriztuta. ☎ 71 53 49 (20.00-22.00).

Aranerrekan **pisua** salgai. ☎ 76 00 39/79 27 68.

**Garaje** bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

**Pisu** eguzkitsua eta berria salgai. ☎ 76 01 96.

**Bi gelatako** pisua alokatuko nuke. ☎ 76 21 43 (Igone).

**Etxea salgai** Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

**Garajea** salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

**Pisu** edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

**Pisua** salgai Koldo Eleizalde 18an. ☎ 76 31 57.

**Etxea** salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

**Garajea** alokatzen da Mas-terrekan. ☎ 76 45 10.

**Pisua** salgai Joan XXIII plazan. ☎ 76 27 80.

**Garaje** bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 33 72.

**DENETARIK**

**Vespa** Iris 200 motorra salgai. ☎ 76 08 51.

**Fiat Tipo** (16 balbula) kotoxea salgai. SS-AH matrikula. ☎ 76 06 69.

**Karreretako** bizikleta salgai. Prezio interesgarria. ☎ 76 60 69.

**Kawasaki** KX 125 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

**Mendiko** bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

**Tosai** kerosenozko estufa berria salgai. ☎ 76 07 61 (eguerdian).

**Indioilarra** eta bost katakuma (siamesak) salgai. ☎ 76 64 65.

**Motozerra** elektrikoa egoera onean salgai. ☎ 76 29 95.

**Sukalde** berri berria saltzen dut. Prezio interesgarria. ☎ 76 21 55 (eguerdian).

**Flauta trabesera** egoera onean salgai. ☎ 76 35 56.

**Organo txiki bat** erosiko nuke. ☎ 76 24 54.

**Masaje** zerbitzua etxez etxe. ☎ 76 41 35 (Virginia).

**Txandal txaketa** txuriurdin bat (Astore) aurkitu dut. ☎ 76 17 25.

**Dibujo** mahaia, taburetea, akuarela ekipoa eta pintzelak saltzen ditut. ☎ 76 36 22.

**LANA**

**Aleman** klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

**OHO**ko klaseak ematen dira. ☎ 76 11 89 (Enmanuel).

**Matematika**, fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Etxeko** lanak egin edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 79 93 17.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Gutxitu psikikoen hezitzaile** batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

**Esperientziadun** neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

**Esperientziadun** neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.


**Matematika** eta zientziatako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkalea 13, 3.a.

**Esperientziadun** peluke-rra bat behar da. ☎ 76 56 69.

Ingenieritza ikasten diharduen mutil batek OHO, BBB eta UBiko **partikularrak** ematen ditu. ☎ 76 53 88 (Pedro).

**Matematika**, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

**ARREGUI, E.M.**



**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK


Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



**AKORT**

- **Fotokopiak koloretan**
- **Publizitadedun kamisetak**
- **Oihal inprimaketak**

San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39




**JAUJA KIROLAK**

Irizar, 2  
☎ 76 14 95


**POL-POL**  
**Taberna**

☎ 76 07 78





# BONOFOTOA



## Iñaki Umerez

Iñaki Umerezek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen etxea zein kaletan dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Ramón María Lili**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak Iñaki Umerezi eman dizkiogu. Zorionak!!

*XVI. mendeko zein etxetan aurkitu dezakegu zurlanduz egindako atetzar ikusgarri hau?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA  
Errotalde Jauregia Bergara





## 1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRA	6	2	14	1
2. ERROTAGAIN	4	2	7	6
3. OGIZUN	3	1	4	2
4. MADURA	3	2	7	6
5. BAR CANALEJAS	3	2	6	4
6. BERGATRANS	3	2	5	4
7. OZAETA	3	2	5	6
8. ANGIOZAR	3	2	4	5
9. KABIA	2	2	2	2
10. ARLOTEAK	1	1	0	0
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	0	2	3	6
12. UFALA	0	2	1	15

## 2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. OH ZEREZOS	6	2	27	5
2. AUTOBEREZI	6	2	16	1
3. KAYAK OS JARDINEIROS	4	2	7	2
4. HARTU ZAMAK	4	2	4	2
5. PAGOMENDI	4	2	5	4
6. A ZE FLAXA	3	2	5	15
7. UVE BIKOITZA	3	2	8	8
8. INDAR GORRI	1	1	2	2
9. ETXAGI	1	2	19	9
10. NAHIKARI HOOLIGANS	1	2	9	12
11. ERI	0	2	5	9
12. HALTZARI	0	2	4	17

## 3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SHAKTALE	6	2	8	3
2. EZINLEIKE	4	2	9	4
3. CONTSRUC BERGARA	4	2	12	8
4. AMOZKIBAR	4	2	6	2
5. SOROPOTROAK	3	2	24	10
6. NEKROFILIKOS	3	2	8	7
7. LA JUVE	3	2	12	10
8. MOSKIS	3	1	4	3
9. KIROLZALEAK	1	1	2	2
10. IGANDEKOAK	0	1	3	5
11. ARI ARI	0	1	6	13
12. EH BITERRAK	0	2	0	22

## 4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	6	2	12	5
2. TXIPIRON	6	2	10	5
3. GUADALEST	6	2	10	5
4. PATXARAN TEAM	3	2	12	5
5. OSINTXU	3	2	7	12
6. ALDOKA MALDOKA	3	2	20	7
7. MATXAKATEGI	1	2	6	10
8. PATA NEGRA	1	2	4	9
9. PJS	0	1	3	4
10. LABEGARAIETA	0	1	1	2
11. XURRUPAK	0	2	3	24

## TALDEAK



**Arlotek** taldea David Bernal, Mikel Gotzon, Iker Altuna, Gorka Arrieta, Jose Javier Santorkuato "Txetxi", Juan Carlos Prieto, Manolo Tejada, Jose Luis Pascual, Txomin Pineda, Jose Tejada, Manuel Marco eta Javi Cambronellek osatzen dute. Txapelketa hasi zenetik dabilta, baina talde hartatik jarraitzen duen bakarra "Txetxi" da. Talde honetan galtzontziloekin kontu handia izan behar da, bestela ikusi diotena: "lehen galtzontziloetan pika-pika hautsak botatzen genituen eta taldekide batek uste zuen ladirak zituela... Gizarajoak depilatu beharra izan zuen..."

## PARTIDUAK

### LARUNBATA BARRUAN

09:00: Labegaraieta-PJS • Patxaran Team  
10:00: Matxakategi-Patxaran Team • PJS  
11:00: Iganekoak-Ari Ari • Patxaran Team  
16:00: Errotagain-Arlotek • A Ze Flaxa  
17:00: A Ze Flaxa-Hartu Zamak • Arlotek

### LARUNBATA KANPOAN

16:00: Guadalest-Osintxu • La Juve  
17:00: Amozkibar-La Juve • Osintxu

### IGANDEA BARRUAN

09:00: Kabia-Ozaeta • Angiozar  
10:00: Ogizun-Angiozar • Pagomendi  
11:00: Pagomendi-Autoberezi • Ogizun  
16:00: OH Zerezos-Kayak OJ • Bergatrans  
17:00: Bergatrans-Bildurbarek • Kayak OJ  
18:00: Nahikari Hooligans-Eri • Bildurbarek  
19:00: Haltzari-Etxagi • Nahikari Hooligans  
20:00: Indar Gorri-Uve Bikoitza • Haltzari

### IGANDEA KANPOAN

09:00: Txipiron-Pata Negra • FAC  
10:00: FAC-Xurruapak • EH Biterrak  
11:00: EH Biterrak-Kirolzaleak • Xurruapak  
16:00: C. Bergara-Nekrofilikos • Soropotroak  
17:00: Soropotroak-Ezinleike • C. Bergara  
18:00: Moskis-Shaktale • Ezinleike

## EMAITZAK

### 1. MAILA

ARLOTEAK-KABIA ..... 0 - 0  
BAR CANALEJAS-ANGIOZAR ..... 4 - 1  
BERGATRANS-UFALA ..... 4 - 1  
MONGATXURRA-BILDURBAREK OPEL/LAM ..... 3 - 1

### 2. MAILA

A ZE FLAXA-UVE BIKOITZA ..... 4 - 2  
OH ZEREZOS-ETXAGI ..... 13 - 3

### 3. MAILA

EH BITERRAK-SOROPOTROAK ..... 0 - 18  
AMOZKIBAR-KIROLZALEAK ..... 2 - 2  
ARI ARI-SHAKTALE ..... 0 - 4

### 4. MAILA

XURRUPAK-OSINTXU ..... 3 - 7  
GUADALEST-ALDOKA MALDOKA ..... 6 - 2



## TALDEAK



**Kabia** taldea Iñaki Mugika, Juan Luis Gallastegi, Fernando Agirrebeña, Iban Lasanta, Igor Iñurrategi, Fernando Gómez, Bittor Jiménez, Javi González eta Asier Maurek osatzen dute. Guztiak Labegaraietakoak dira eta 8 urte daramatzate elkarrekin jokatzeko. Duela 3 urte kopako txapelkunak izan ziren eta aurtengo denboraldian dena irabazi nahi dutela adierazi digute. Labegaraietako taldea izanik, kiroldegiko armailetan astebururo jarraitzaile asko izaten dituzte eta eurek esan digutenez, "eurengatik izango ez balitz, ez ginateteke garena izango. Ezinbestekoak dira".



# BKEko saskibaloia

## Saila sendotu nahian talde berri bat sortu da



**Alex Familiar**  
Saskibaloi sailekoa

### Beste talde bat

"BKEko saskibaloia taldeak 1.200.000 pza.ko aurrekontua du eta 10 lagun ari gara lanean. Egitura aldetik eskas samar gabilta eta helburua saskibaloian jokatzeko ari diren jokalariek klubeko beste lan batzuetan inplikatzeko da. Iaz 3 talde genituen eta aurten beste bat atera dugu. Ondorioz aurrekontuak gora egin du eta une hau aprobetxatu nahi dut eskerrak emateko laguntza eskeini diguten herriko komertzioei. Bestalde, aurten jokatzeko beste kantxa bat dugu Mariaren Lagundikoa hain zuzen ere. Orain, entrenatzeko erraztasun gehiago ditugu. Labegaraietako kiroldegian jende asko ibiltzen da eta ordu gutxi daude guztiontzako, gainera txapelketako partiduak ere kantxa berrian jokatzeko dituzte talde batzuk eta bertan sortzen den giroa aparta izaten da".



### Senior mutilak.

Zutik: Jabier Martin, Ramon Conde, Inigo Ziarsolo, Aniotz Gabilondo, Ugutz Basauri eta Jordi Prat. Makurtuta: Asier Blazquez, Jose Herzog, Alfonso Romera, Mikel Etxeberria, Mikel Garitano eta Fernando Moretón. Joan zen urtean mailaz igo zuten eta aurtengo helburu nagusia kategoriari eustea da. Datorren urtean emaitza hobekoak lortzeko asmoarekin.

### Junior mutilak.

Zutik: Iganacio Aranburu, Igor Setien, Unai Azkarate, Alex Biziola, Alex Familiar (entrenatzailea), Arkaitz Manuel, Gorka Mendizabal eta Jesus Morais. Makurtuta: Ivan Herzog, Gorka Arana, Gorka Unzueta, Martin Etxebarri, Aitor Zabarte, Angel Ortiz eta Gorka Eraña. Adinez kadeteak dira, baina maila hobetzeko jubeniletan ari dira. Halere gogor egin beharko dute emaitza hobekoak lortzeko.



### Junior neskak.

Zutik: David Urbina (entrenatzailea), Ana Belastegi, Oihana Unamuno, Marian Barroso eta Iker barbero (entrenatzailea). Makurtuta: Jaseone Zabala, Maider Urbina, Edurne Zabala eta Agurtzane Inarra. Argazkian falta dira: Uzun Garitano eta Maider Beristain. Joan zen urtean arazoak izan zituzten, baina entrenatzaile berriak dituzte eta gogo handiz hasi dute denboraldia.



### Kadete neskak.

Zutik: Juan Benitez, Leire Gonzalez, Maite Zumarraga eta Maite Usabiaga. Makurtuta: Cristina Manobel, Mirian Olabarria eta Olatz Laborda. Joan zen urtean talde honek eskola kirolean jokatzeko zuen eta kirol federatua berria da eurentzat. Jokalari gutxi daude taldean eta esperientzia falta ordaindu dezakete. Baina emaitza onak lortzeko esperantza dute.





## FUTBOL PARTIDUAK

- ◆ **Bergara-Elgoibar**  
Ohozeiko mailako jubenilak.  
Larunbata, 15.45. Agorrosin.
- ◆ **Bergara-Real Sociedad**  
Lehen mailako kadeteak.  
Igandea, 11.30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Aloña Mendi**  
2. mailako kadeteak.  
Larunbata, 11.00. Ipintza.

## ESKUBALOI PARTIDUAK

- ◆ **Bergara-Urduliz**  
Senior mutilak  
(2. nazionala).  
Larunbata, 18.30.  
Labegaraieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Beasaingo**  
Senior mutilak  
(2. territoriala).  
Igandea, 12.15.  
Labegaraieta kiroldegia.

## SASKIBALOI PARTIDUAK

- ◆ **Bergara Alfis-Goierri**  
Junior mutilak.  
Larunbata, 16.00.  
Mariaren Lagundia.
- ◆ **Bergara-Urbina Maltzaga**  
Junior neskek.  
Larunbata, 12.15.  
Labegaraieta kiroldegia.

## IGERIKETA FESTA

Joan zen larunbatean Gipuzkoako igerilarien festa ospatu zen Tolosan. Bazkalondan hainbat sari banatu ziren eta Eneritz Muguruza bergararrak bere mailako igerilari onenaren saria jaso zuen. Bestalde, plaka bana jaso zuten Bergarako Udalak, azken urteetan igeriketaren alde egindako lanagatik, eta Bergarako waterpolo taldeak, Gipuzkoako waterpolo talderik onena izateagatik.

# Amaia Samaniego

## Bidebieta Eskubaloi Taldean

**Amaia Samaniegok joan zen urtean Euskadiko selekzioan jokatu eta BKEN emaitza ezin hobekak lortu ondoren, Donostiako Bidebieta taldeak fitxatu du. Donostiara joan behar izan du bizitzera eta ikastera baina pozik dago Bidebieta estatu mailako talderik onenatarikoa baita.**

**- Zer moduz Donostian daramatzazun bi hilabete hauetan?**

- Ondo, baina gogor samarra da. Bergaran astean zehar hiru egunetan entrenatzen genuen eta han egunero ordu t'erdiko entrenamenduak egin behar ditugu. Hiru egunetan jubentekin, nere taldearekin, aritzen naiz eta bi egunetan talde nagusiarekin. Entrenamenduak gogorrak dira, nagusiak fisiko aldetik gehiago dira eta asko ikasten da.

**- Ze sentitzen da atzerritarrekin entrenatzerakoan?**

- Estimulo handia da niretzat. Gainera eurekin asko ikasten dugu. Entrenatzen ari garen bitartean, eurek asko erakusten digute. Eurekin jokatzeo indar gehiago izan behar da eta joku aldetik ere gauza berriak ikasten ditugu.

**- Konforme zaudete orain arte egin duzun lanarekin?**

- Orain artekoarekin gustora nago. Lau partidu jokatu ditugu eta bakarra galdu dugu. Arazo fisikoengatik ez dut jokatu par-

tidu bat, baina gainontze-koetan ondo irten zaizkit gauzak.

**- 16 urte dituzu eta dagoeneko etxetik kanpo bizitzen. Nola moldatzen zara?**

- Hasieran esaten duzu, "ba etxean hobeto", baina gero moldatu egiten zara eta ondo nago. Pisuan beste 3 taldekideekin bizi naiz eta ondo konpontzen gara. Institutura joan, lanak egin, entrenamenduak...

**- Pisuan orduan eskubaloia izango da nagusi, ezta?**

- Bai, baina futbolaz ere hitzegiten dugu. Beste hirurak bizkaitarrak dira eta Athletici eta Realari buruzko eztabaidak izaten ditugu. Baina, bestela ondo.

**- Jubentetan 3 urte geratzen zaizkizu eta etorkizunerako, ze helburu dituzu?**

- Eskubaloian jokatzen jarraitzea eta talde nagusira igotzea. Nire asmoa ikasten eta jokatzen jarraitzea da eta etorkizunean eskubaloian jarraitzea, ahalik eta maila gorenera heltzeko.



16 urte ditu eta oraindik beste hiru urte jokatu dezake jubentetan.

**"Nagusiekin astean bi aldiz entrenatzen dut eta asko ikasten da, gogorra den arren"**





## *San Markos eguna, 1958 urte inguruan*

**S**an Markos ofizinen eguna ospatzeko ohitura zeukaten Zerrajerako langileek apirilaren 25a heltzen zen bakoitzean. Goiko argazkia 1958 urte ingurukoa da. Urtero irteera bat egiten zuten, lan kontuak ahaztu eta lagunartean primeran pasatzeko asmoz. Kotxea edo autobusa hartu, paraje ederrak bisitatu eta ondoren mahai baten inguruan bildu, majo bazkaldu eta bazkalostean beren gorabeherak komentatzeko.

San Markos eguna zelebratzeko ohitura 1980 urte ingurura arte mantendu zuten. Beharbada argazkia ikusita garai zaharrak gogoratzeko gogoia izango dute hurrengo San Markos egunean... Horra hor argazkian agertzen direnen izenak.

**Ezkerretik eskumara:** Milagros Durana, Luz Telleriarte, Miren Retegi, Jose Mari Luarizaristi, Mari Sol Manso, Carmelo Mendibil, Asuntxi Gallastegi, Arantxa Aiausti eta Manolo Altolagirre.

*Argazkia: Carmelo Mendibil*

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**ZUBIETA**  
*elektragintza*

**MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48





**adituak gara loreekin  
artea egiten!!**

Barrenkale, 28 BERGARA ☎ 76 04 85

Kalebarren, 1 ANTZUOLA ☎ 76 62 44

**ERA GUZTIETAKO APAINKETA  
LANAK EGITEN DITUGU:**

- Elizenak
- Automobilenak
- Atarienak
- Andregaienezako erramuak
- Koroak
- Hiletetarako apainketak

**ETXE BARRUEN DEKORAZIOA**

**DOMU-SANTU EGUNERAKO  
(AZAROAK, 1) ENKARGUAK  
EGITEN DITUGU**



**ELKAR  
ELEKTRAGINTZA**



**Mota guztietako instalazioak**



**76 00 00**

**Koldo Eleizalde, 8.  
BERGARA**





*15 urte zure zerbitzura*  
*Eskerrikasko zuen*  
*konfidantzagatik*



**Bolu 24, behea BERGARA**



**Tfnoa eta Faxa: (943) 76 30 57**